



www.begiko.com

© Testua: 1997, ANTTON IRUSTA

© Irudiak: 2018, ENRIQUE MORENTE

© Argitalpen hau:

2018, Santillana Infantil y Juvenil, S.L. eta Zubia Editoriala, S. L.

Legizamon poligonoa. Gipuzkoa kalea, 31, 1. esk.

48450 Etxebarri

Tel.: 94 426 90 72

ISBN: 978-84-16839-00-1

Lege-gordailua: M-16271-2017

Printed in Spain - Espainian inprimatua

Lehen argitalpena: 2018ko urtarrila

Zortzitik gora berrargitalpen Zubia argitaletxean

Sailaren zuzendaritza:

Joseba Santxo eta Maite Malagón

Edizioa:

Ainhoa Basterretxea eta Yolanda Caja

Errealizazioa:

Miren Pellejero

Zuzenketa:

Ane Barrenengoa eta Amaia Lasheras

Arte-zuzendaritza:

José Crespo eta Rosa Marín

Proiektu grafikoa:

Marisol del Burgo, Rubén Chumillas, Julia Ortega eta Álvaro Recuenco

Debekaturik dago, legeak ezarritako salbuespenak salbu, lan hau inola erreproduzitzea, banatzea, jendaurrean jakinaraztea, zein eraldatzea, haren jabetza intelektuala dutenen baimenik gabe. Lan honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo zuzenean CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

Katxin

Antton Irusta

Irudiak: Enrique Morente

begiko

*Ekar dezala Katxinek ipuin uzta,
dena lau hostoko hirusta.*

Katxin eta aitita

Antzina, behi, ardi, txakur, katu eta animalia guztiek, eta belar eta arbolek hitz egiten zutenean, mendian, urruneko baserri batean, mutil apal eta zintzo bat bizi zen. Katxin zuen izena. Gazte-gaztea zen: hamar bat urte zituen.

Txiki-txikitatik aititarekin bizi zen. Aititak irakatsi zion natura maitatzen, landareen, zuhaitzen eta animalien izenak eta, batez ere, basoaz nola baliatu.

Katxin oso gustura bizi zen aititarekin. Baserriko lanak egiten laguntzen zion. Hilean behin jaisten ziren menditik kilometro askotara zegoen herri bitxi batera. Herri

hartako plazan, Katxinek eta aititak basoko landareak, baserriko ogi bereziak, ortuariak, intxaurrak, saskiak eta egurrezko aulki dotoreak saltzen zituzten.

10 Nola gustatzen zitzaion Katxini azokara joatea aititarekin! Azoka egunetan, herriko kaleak jendez gainezka egoten ziren eta Katxin zoriontsu sentitzen zen.

Gaur, urte amaierako azoka eguna da, eta Katxin eta aitita herriko enparantzan daude ortuariak saltzen. Halako batean, ume bat hurreratu zaio Katxini eta zera esan dio:

—Aizu! Nor zara? Non bizi zara? Zer egingen duzu hemen?

—Nor naizen? Katxin dut izena eta mendi baserrian bizi naiz. Aititarekin etorri naiz hona eta, ikusten duzunez, baserriko jakiak saltzen ditugu.

—Ba, ni Pello naiz eta oporretan nago eskolan. Gabonetako oporrak eman dizkigute

eta bihar Olentzero kantatu behar dugu herriko plazan, poz-pezik gainera.

—Zer esan duzu? Oporretan zaudela eskolan? —Katzinek.

—Bai. Larunbat eta igandeetan izan ezik, gainerako egunetan eskolara joaten naiz. Han lagun berriak egin ditut eta Amaia andereñoarekin egoten gara kontu-kontari.

11

—Eta bihar zer egingo duzu, Pello? Olentzero abestu?

—Bai. Bihar herriko eskolako haur guztiak kalerik kale joango gara Olentzeroren kanta abesten. Amaia andereñoak irakatsi digu eskolan.

Horrelaxe amaitu da Katxinen eta Pelloren arteko elkarrizketa. Azoka egun honetan Katzinek bi hitz berri ikasi ditu: *Olentzero* eta *eskola*. Gauean itaunduko dio aititari nor den *Olentzero* eta zer den *eskola* hitz hori.

Aititarekin supazterrean berbetan

12 Gauean, aitita eta Katxin baserriratu direnean, eder-ederto afaldu dute. Aititak afari galanta prestatu dio Katxini. Ostean, suntuondoan gozo-gozo, Katxinek Olentzeroren eta eskolaren jakin-min izugarria du.

—Aitita, badakizu? Gaur azokan mutikobat ezagutu dut. Pello du izena eta esan dit eskolara joaten dela eta han Amaia andereñoarekin egoten dela. Gainera esan du bihar bertan Olentzero abestu behar dutela. Esadazu, aitita, nor da Olentzero?

—Katxin maitea. Hara! Zuk ere eskolara joan beharko duzu. Han lagunak egingo dituzu eta, bide batez, gauza asko ikasi.

Andereño edota maisu bat izango duzu eta goiz eta arratsaldea emango dituzu jolasten, margotzen eta gauza ugari ikasten. Gure baserria eskolatik oso urrun dago eta nik ezin zaitut egunero eramane. Baina hamar urte dituzunez, nahi baduzu hemendik aurrera zu zeu bakarrik joango zara. Zer deritzozu?

13

—Aitita, nik zurekin egon nahi dut baserrian, lagundu egin nahi dizut. Baina eskola zer den ere ezagutu nahi dut. Eta beste galdera bat ere egin behar dizut, aitita. Pellok esan dit Olentzero kanta abestu behar dutela. Nor dugu Olentzero gizon hori?

—Tira, ba, Katxin. Entzun, entzun ezazu arretaz nor dugun Olentzero.

Eta aitita honako istorio hau kontatzen hasi zaio.

*Munduan beste asko legez
artaburuak koskolez.*

«Orain dela urte asko, Olentzero izena zuen gizon bat bizi zen. Oso handia, lodia eta indartsua zen eta mendian lan egiten zuen. Gure Olentzero ikazkina zen eta ikatza egiteko zuhaitzak ebakitzen zituen.

14 Gero, enbor eta adarrak pilatu eta txondorra egiten zuen; lurrez estali ondoren, su ematen zion.

Belzturik zegoen beti suaren keaz eta ikatzaz, eta aurpegia, eskuak eta jantziak beti zeuzkan beltz-beltz eginda.

Olentzero mendian bizi zen. Mendian jan eta mendian lo eginez igarotzen zituen gauak eta egunak.

Neguko egun hartan, zereginak bukatu eta gero, hotzaren hotzez eta gosearen gosez bere txabolara joan zen. Afari ederra prestatu eta jan ondoren, txabola aurrean eseri zen lasai-lasai pipa erretzen. Bat-batean, zeru erdian argitasun handi eta distiratsu bat



agertu zitzaion eta ikaratu egin zen. Baina Jesusen jaiotza adierazten zuen izarra zela konturatu zenean, laster lasaitu zen.

16 Orduan, pozaren pozez saltoka eta saltoka herrira jaitsi zen Jesusen jaiotza-
ren berri ematera eta herriko guztientzat zaku bete opari eramanean zuen: batzuentzat ikatza, etxea berotzeko; beste batzuentzat gaztainak eta turroiak jateko; eta haurrentzat, jostailu zoragarriak jolasteko.

Herriko jendea biziki poztu zen eta jai bat egitea pentsatu zuten.

Ordutik, urtero-urtero Euskal Herrian Gabon inguruan eta herri guztietan, Olentzeroren jaia ospatzen da eta bere panpina kalejiran ateratzen da, honako hau kantatuz:

*Olentzero joan zaigu
mendira lanera,...*

Eta kontatzen dutenez, gauez erlojuak hamabiak jotzen dituzenean, benetako Olentze-

ro menditik jaisten da, zakua lepoan duela, tximinia zuloatik etxe guztietara sartu eta ume bakoitzari opari bat uzten dio».

Eta aititak ipuina amaitu duenerako, Kaxin lozorroan dago.